# CAMBO *infos* LES BAINS

JUILLET 2015 • 8

KANBO BERRIAK

www.cambolesbains.fr



HOMMAGE OMENALDIA

## JOSEPH APESTÉGUY
### ALIAS CHIQUITO DE CAMBO
**Ezizenez Kanboko txikito**

CULTURE

## ASSANTZA, le projet culturel de centre ville
**ASSANTZA, KANBOKO HIRIBARNEKO KULTURA PROIEKTUA**

## Chers camboars,



Sans oublier ce qui s'est produit l'an passé, Cambo retrouve son activité normale, grâce notamment aux curistes qui reviennent en grand nombre.

Les associations de Cambo multiplient les propositions d'activités et d'évènements et contribuent à faire de notre ville un lieu animé et vivant.
Avec les commerces, elles constituent un atout pour le développement de Cambo.

Nous constatons avec joie que les projets d'artisanat d'art sont désormais une réalité.

L'acquisition de "Courant d'air" au Bas-Cambo et la location du rez-de-chaussée de la Maison Laborde, décidées par la seule majorité municipale, viennent conforter cette orientation.

Quant à la Maison Assantza, elle est devenue un espace culturel vivant et accueille cette année de nombreuses expositions dont celles sur Pablo Tillac et Jesus et Maialen Echevarria.

Au mois d'août, les Estivales d'Arnaga vous attendent dans des jardins rénovés et dont la mise en lumières est désormais achevée.

Enfin, grâce à l'édification d'un deuxième fronton, la Fédération française de pelote basque a choisi notre cité pour la journée inaugurale de la Grande semaine des sports basques qui aura lieu en août.

Ce sera l'occasion d'inaugurer ce fronton et d'y apposer le médaillon du plus grand pilotari, Chiquito de Cambo.

Très bonne saison estivale à tous !

*Bien cordialement,*

Vincent BRU
Maire de Cambo-les-Bains

## Kanboar adiskideak,

Iaz gertatua ahantzi gabe ere, Kanbo berriz eguneroko bizitzari lotu da, batez ere ur onetara datozen jende anitzi esker. Kanboko elkarteek jarduera eta ekitaldi anitz eskaintzen digute eta herriari bizia ematen.

Saltokiekin batera, Kanboren garapenerako bideak irekitzen dizkigute.

Bozkariobide zaigu ere arte eskulangintza proiektuak egi bihurturik ikustea.
Kanbo beherean «Courant d'air» erostea eta Laborde Etxearen behe solairua alokatzea herriko hautetsien gehiengoak erabaki zuen eta proiektu horien sustatze asmoz eskuratu ditugu bi eraikuntza horiek.

Assantza etxea, berriz, kulturagune bizia dugu eta erakusketa anitz eskaintzen ari zaigu aurten, besteak beste, Pablo Tillacena eta Jesus eta Maialen Echevarriarena.

Agorrilan, Arnagaren uda partekoak zain dituzue berrituak izan diren lorategietan, argiak ere berriki emanak izan direlarik.

Azkenik, bigarren frontoia eraiki dugunez, Euskal Pilotako Frantziako Federazioak gure herria hautatu du agorrilan eginen den euskal kirolen aste nagusiaren irekitze egunerako.
Frontoiaren irekitze ekitaldia eginen dugu eta pilotarietan onena izan zen Kanboko Txikito pilotari hautaren medailoia emanen dugu bertan.

Uda ona pasa ezazue!

*Bien cordialement,*

Vincent BRU
Kanboko auzapeza

**Bulletin édité par la ville de Cambo-les-Bains**
**Directeur de la publication : Vincent BRU**
**Crédit photos : ville de Cambo-les-Bains, Haritza, L. Odillard. - Dépôt légal à parution**
**Conception réalisation : Haritza 05 59 57 10 57**

**Bulletin imprimé sur papier recyclé sans chlore**

# FÊTE DE LA NATURE à la colline de la bergerie







**Samedi 23 mai a eu lieu la seconde édition de la fête de la nature sur le site de la Colline de la bergerie à Cambo, organisée par le Département et la commune.**

Cette année, le programme était étoffé grâce à la présence de multiples associations qui s'impliquent au quotidien dans le monde de l'environnement. Les visiteurs ont pu rencontrer les apiculteurs de Nature et Abeilles, la société de pêche AAPPMA de la Nive, le centre de soin HEGALALDIA, le club de randonnée, les étudiants en BTS Gestion et Protection de la Nature de St Pée sur Nivelle et le CPIE Pays Basque qui réalisait des visites guidées gratuites du site.
Une petite touche ludique a été ajoutée cette année, notamment grâce à la présence de "Karaban'art" qui proposait des ateliers de peinture végétale à base de teinture de betterave, chou rouge et épinard ainsi qu'un atelier de vannerie à base de fougères… d'autres enfants et familles ont pu également se divertir auprès des jeux géants en bois qu'avait amenés l'association "Au jardin des jeux".

Toute la journée, le public s'est relayé au sommet de la colline pour (re)découvrir cet espace naturel sensible, propriété du Département des Pyrénées-Atlantiques qui fête cette année 30 ans de politique en faveur de la préservation de la biodiversité et des paysages…
L'association de danse JEIKADI a encore une nouvelle fois répondu présent avec une démonstration de danses traditionnelles interprétées par la (très) jeune génération.
Quelques classes des écoles de Cambo ont pu également venir lors de sorties natures, les 2 jours précédents la fête, organisées par le Département.

La fête de la nature commence à prendre racines au sommet de la Colline de la bergerie, c'est pourquoi la commune et le Département vous invitent l'an prochain à venir flâner et vous divertir sur ce site merveilleux.

## Naturaren besta arditegiko muinoan

Maiatzaren 23an, larunbatarekin, egin zen, Kanboko arditegiko muinoan, naturaren besta, Departamenduak eta Herriak antolaturik.
Aurten, programa betea genuen, ingurumenaren alorrean lanean ari den elkarte anitzek hartu baitu parte. Bisitariek hainbat jende eta elkarte ezagutu eta haiekin mintzatzeko aukera ukan dute: «Nature et Abeilles» (Natura eta erleak) elkarteko erlezainak, Errobiko arrantza elkartea (AAPPMA), HEGALALDIA zaintza zentroa, ibilketa kluba, Senpereko Natura Kudeatu eta Babesteko Goi mailako Teknikari Brebeterako (GTB-BTS) ikasleak, eta Euskal Herriko Ingurumenaren Aldeko Ekintzen Zentro Iraunkorra (IAEZI-CPIE), zeinak lekuaren bisita gidatuak eskaintzen baitzituen, urririk.

Aurten, zerbait jostagarriago ere bazen, «Karaban'art» baikenuen partaideen artean, landare tinduz (beterraba, aza gorri eta ziazerba tinduz) margotzeko lantegiak eta iratzez otarreak egiteko lantegi bat eskaintzen. Horrez gain, « Au jardin des jeux » (Jolasen baratzean) elkarteak egurrezko bi erraldoi ekarri zituen, haurren eta familien abusagarri.

Egun osoan zehar, publikoa muinoaren gainera hurbiltzen ibili zen, andeaerraz den naturagune hori ezagutzeko edo berriz bisitatzeko; gunearen jabe den Pirinio Atlantikoetako Departamenduak 30 urte betetzen ditu aurten bioaniztasunaren eta paisaien aldeko politika egiten ari.

JEIKADI dantza elkarteak aurten ere parte hartu du ekitaldian eta tradizioko dantzen erakustaldi bat eskaini digu, belaunaldi gazte-gazteak emanik.

Kanboko eskoletako zenbait ikasgela ere etorri ziren, bestaren aitzineko bi egunetan Departamenduak antolatu natura ateraldiak eginez.

Naturaren besta hasia da arditegiko muinoaren gainean errotzen; hartara, Herriak eta Departamenduak heldu den urterako gonbidatzen zaituztete, leku eder horretan goxoan ibiltzera eta libertitzera.




# Budget 2015

**Le budget 2015 a été adopté le 13 avril dernier par le
Son montant voisin de 10 millions d'euros atteste du poids
au cœur du Pays-Basque intérieur.
Cet acte prévisionnel qui détermine le cadre financier
Conseil Municipal seront amenés à percevoir les recettes
a été établi dans un contexte d'austérité caractérisé
désengagement massif de l'Etat au détriment des**

## BUDGET GÉNÉRAL

Cambo va ainsi subir une perte nette de plus de 850 000 € de la Dotation globale de Fonctionnement sur le période 2014-2017 !!
Malgré cet environnement tendu, le budget 2015 demeure ambitieux en matière d'équipements, même si le gel des impôts locaux et le recours modéré à l'emprunt
(1 000 000 €) ménagent une marge de manœuvre limitée.

L'équilibre de la section de fonctionnement s'opère autour de 6 millions d'euros comme l'année antérieure, ce qui traduit une maîtrise des dépenses et en particulier de celles liées au frais de personnel qui représente moins de 40% des dépenses de fonctionnement.
Les charges à caractère général ont également peu progressé malgré un maintien des subventions au secteur associatif.
Celle allouée en 2015 au CCAS (620 500 €), en progression sensible, souligne l'effort de la collectivité en matière d'action sociale : crèche, centre de loisirs, aide aux personnes âgées et aux personnes en difficulté, et supporte le coût induit par l'avènement des nouveaux rythmes scolaires.
Un effort également a été consenti par la Commune en matière fiscale puisque, malgré ce contexte global dégradé, la municipalité a décidé de geler tous les impôts des ménages sur le présent exercice.

Pour autant, les investissements n'ont pas été sacrifiés. Ainsi les projets structurants seront poursuivis en 2015 avec près de 3 millions d'euros consacrés aux divers équipements dont le cœur de ville.
A l'intérieur de cette enveloppe, une somme d'1 million d'euros (entièrement empruntés à un taux particulièrement attractif) sera dédiée à la réfection de la voirie.

# 2015eko AURREKONTUA

**2015eko aurrekontua iragan apirilaren 13an onartu zuen Herri Kontseiluak.
Kopurua 10 milioi euro ingurukoa da, barnealdeko Euskal Herriaren bihotzean den gure herri honen indar ekonomikoaren adierazle.
Behin-behineko ekintza honek diruzko eremua zedarritzen die auzapezari eta Herri Kontseiluari, bertan har ditzaten diru sartzeak eta bertatik egin gastuak; diruetan zorrotz den egoera batean egin dugu aurrekontua, Estatuak tokiko elkargoen esku uzten ari delarik, nabarmenki, orain arte bere gain hartzen zuen gastu anitz.**

## AURREKONTU OROKORRA

Kanbok Funtzionamendurako Zuzkidura Orokorretik 850 000 € baino gehiago galduko ditu 2014-2017 aldian!
Egoera gaitz honetan, 2015eko aurrekontuak asmo handiak erakusten ditu, halere, ekipamenduei dagokienean, nahiz eta tokiko zergak ez emendatzeak eta mailaguari leku gutxi uzteak (1 000 000 €) aritzeko aukera handirik ez eman.
Funtzionamendu atalaren oreka 6 milioi euro ingurutan egiten da, hau da, iaz bezala; horrek gastuak kontrolatzea dakar, bereziki langileei loturiko gastuak, funtzionamendu gastuen % 40tik beherakoa baita.
Karga orokorrak ere gutxi emendatu dira, elkarteentzako dirulaguntzak mantendurik ere.



## Conseil Municipal.
## économique de notre ville

## dans lequel le Maire et son
## et à engager les dépenses
## notamment par un
## Collectivités Locales.



### BUDGETS ANNEXES

Les budgets annexes totalisent près de 3 300 000 €. Le plus significatif, celui de l'assainissement collectif, enregistre un produit de la redevance autour de 345 000 €.
Cette recette autofinancera une partie des investissements prévus pour plus d'1 million d'euros et liés d'une part à l'achèvement de la mise en séparatif des réseaux : au chemin du Camp de César, à la route des Sept Chênes et au chemin d'Harizkasuia au Bas-Cambo et d'autre part aux travaux de reprise des canalisations au pont des thermes suite aux avaries créées par les inondations du 4 juillet dernier.

**Telles sont les tendances lourdes du budget 2015 qu'une gestion responsable soumet à un contrôle drastique ainsi qu'à des arbitrages inéluctables conditionnés par nos capacités contributives et financières.**

### AURREKONTU GEHIGARRIAK

Aurrekontu gehigarrien kopuru osoa ia 3 300 000 €koa da. Handiena saneamendu kolektiborakoa da, zerbitzu zergetan 345 000 € inguru biltzen duelarik.
Diru sartze horrek inbestimenduen zati bat ordainduko du; guztira, inbestimendua milioi bat eurotik gorakoa aurreikusia da, zati batean sareak banatzen bukatzeko -Camp de César bidea, Zazpi Aritzen errepidea eta Harizkasuia bidea, Kanbo beherean-, eta beste aldetik, iragan uztailaren 4ko uholdeak hondatu termen zubiko hoditeria berritzeko lanetarako.



2015ean Gizarte Laguntzetarako Udal Zentroari (GLUZ-CCAS) emanikoak (620 500 €) gora egin du nabarmen, herriak gizarte laguntzetarako egin nahi duen ahaleginaren adierazle: Haurtzaindegia, aisialdi zentroa, adinekoentzako eta zailtasunetan direnentzako laguntzak, bai eta eskola erritmo berriek dakarten kostua ere bere kargu hartzen baitu.
Herriak zergetan ere egin du ahalegin bat, ingurua txarra izanik ere, herritarren zergarik ez igotzea erabaki baitu.

Halarik ere, inbestimenduak ez dira moztu. Hartara, egituratzaile diren proiektuekin jarraituko dugu 2015ean, ekipamendutarako –hiri barnea tarte- 3 milioi euro emanik. Kopuru horretatik, milioi bat euro (interes tasa oso on batekin mailegatuak osoki) bideak konpontzeko izanen dira.

**Horra 2015eko aurrekontuaren joera nagusiak, kudeaketa arduratsu batek kontrol zorrotz baten pean jartzen dituenak eta erabakiak hartzera behartzen dutenak, betiere diru egoerari so eginez.**





Deba

Ville de Cambo-les-Bains Kanboko Herria



# Mardi 18 août 2015

# CAMBO - DEBA en vélo !

## Peut-être l'ignorez-vous encore, mais la ville de Cambo est jumelée avec la ville de Deba en Guipuzcoa

Deba est une cité côtière située après Saint-Sébastien et c'est l'une des dernières villes-villages de Guipuzcoa. C'est une cité balnéaire dont les habitants travaillent très souvent à Saint Sébastien ou dans la zone industrielle d'Itziar à quelques kilomètres. Pour ceux qui voudraient en savoir un peu plus, nous vous invitons à découvrir le site internet de la commune : http://www.deba.eus/es/



**DIMANCHE 9 AOÛT**

Cette journée est consacrée au jumelage de notre ville avec celle de Deba en Guipuzkoa. Les équipes de foot de la Kanboko Izarra et de Deba, des jeunes de 16 à 18 ans se rencontreront pour un match amical à 11h au stade Pedro Halty puis déjeuneront ensemble.

Divers échanges entre clubs, associations, scolaires de Cambo et de Deba se sont déroulées avec succès. Cette année nous souhaiterions établir des liens entre cyclistes amateurs des deux cités. Ainsi, nous avons pensé organiser une étape Cambo-Deba à l'occasion des fêtes de San-Roque c'est à dire les fêtes de Deba.
Cette étape, au départ de Cambo, passera par Espelette, Saint-Pée, Ascain, Biriatou, Irun, Renteria, Pasajes, puis nous longerons la côte via Saint Sébastien, le Monte Igueldo, Orio, Getaria, Zumaia, Itziar avant d'arriver à Deba. Longue de 115 km cette étape offre un parcours varié avec des sections planes et quelques côtes, dont le Monte Igueldo. Tout le parcours côtier avec vue sur la mer est absolument magnifique !
Nous partirions de Cambo à 7h30 afin de pouvoir atteindre Deba vers 13h. Un deuxième départ pourra avoir lieu depuis Irun pour ceux qui souhaitent raccourcir la distance à environ 80 km.

Sur place , et après une bonne douche, vous serez invités à un buffet, puis vous pourrez profiter des fêtes de Deba et de la journée dédiée au jumelage avec Cambo. Peut-être même choisirez-vous d'assister à la novillada qui a lieu en plein cœur du village ?
Le retour s'effectuera en bus, avec un départ vers 22h30, donc une arrivée à Cambo vers minuit. Les vélos seront rapatriés dans une camionnette de la ville de Cambo.

**Vous êtes intéressés ? Dites le nous !**
**Vous souhaitez davantage de précisions ?**
**Appelez nous ! Contacter Nicolas Lebars à la Mairie au 05.59.93.74.30 ou par mail à : sport@mairie-cambolesbains.fr**



## 2015EKO AGORRILAREN 18A
## ASTEARTEA KANBO-DEBA BIZIKLETAZ!

**BEHARBADA ORAINDIK EZ DAKIZUE, BAINA KANBO HERRIA GIPUZKOAKO DEBA HERRIAREKIN SENIDETUA DA.**

Deba kostaldeko hirixka bat da, Donostiatik mendebaldera kokatua, eta Gipuzkoako azken hiri-herrixketako bat da. Balneario hirixka bat da; biztanleek, maiz, Donostian edo Debatik kilometro zenbaitetara den Itziarreko industrialdean egiten dute lan. Zertxobait gehiago jakin nahiko luketenek, herriaren webgunea bisita dezatela: **http://www.deba.eus/es/**

Kanbo eta Debako klub, elkarte eta ikasleren arteko zenbait trukada eginak dira jadanik, arrakasta handiz. Aurten, bi hirietako txirrindularien arteko harremanak sustatu nahiko genituzke. Horretarako, burura etorri zaigu Kanbo-Deba etapa bat antolatzea, San Roke jaietan, hau da, Debako jaietan.

Etapa Kanbotik abia, Ezpeleta, Senpere, Azkaine, Biriatu, Irun, Errenteria eta Pasaia pasa eta gero, itsas hegiari jarraiki, Donostia, Igeldo, Orio, Getaria, Zumaia, Itziar pasa eta Debara helduko litzateke.
Luzera, 115 km, ibilbide aberats batean, zati lau zenbait eta tartean, maldaren batzuk ere bai, Igeldo mendia bezala. Itsas hegiari jarraikitzen dion ibilbideak itsas zabalaren gaineko ikusmira eder baino ederragoa eskaintzen du!
Kanbotik 7:30ean abiatuko gara, Debara 13:00ak inguru heltzeko.
Ibilbidearen luzera 80 kilometrotara laburtu bahi dutenentzat bigarren abiatze bat antola daiteke, Irundik.
Behin Debara heldurik, dutxa on baten ondoren, jatera gonbidatuak izanen zarete; gero Debako bestetan eta Kanborekiko senidetzeari eman egunaren karietara libertitzeko aukera ukanen duzue.

Beharbada, herri erdian eginen den zekorketara ere joatea hautatuko duzue?
Berriz Kanbora itzultzeko, autobusa hartuko dugu, 22:30ean Debatik abia eta Kanbora gauerdi inguru helduz.
Bizikletak Kanboko Herriaren kamioneta batean ekarriko ditugu herrira.
Etorri nahi? Erran iezaguzu! Informazio gehiago nahi? Dei gaitzazu!
Harremanetarako, Nicolas Lebars, Herriko Etxean, 05.59.93.74.30 telefono zenbakian edo helbide elektroniko honetan:
**sport@mairie-cambolesbains.fr**

**Abuztuaren 9a, igandearekin, Kanboren Debarekiko (Gipuzkoa) senidetze eguna dugu. Kanboko Izarra taldeko eta Debako taldeko 16-18 urte arteko gazteek adiskidantza partida bat jokatuko dute, goizeko 11etan, Pedro Halty estadioan, eta gero elkarrekin bazkalduko.**

## Commémoration du centenaire de la première guerre mondiale

A l'occasion de cette manifestation, une délégation camboarde avait fait le déplacement jusqu'à Paris pour honorer les victimes de la Grande guerre et ramener la flamme jusqu'à Cambo pour la cérémonie.



## Hommage à Camille Muffat



Ce jour là en 2013, sous le soleil et en toute simplicité, Camille a rayonné au milieu des jeunes nageurs de Cambo.
**Comme eux, nous ne t'oublierons pas !**



**Essor basque 2015** Malgré le temps incertain, le public était bien là pour encourager les espoirs du cyclisme international.



## Fête de la Musique

Rendez-vous populaire du début de l'été, la fête de la musique anime le parc Saint Joseph rénové ; instruments traditionnels et jeunes talents s'y côtoient le temps d'une journée.



## Fête du gâteau basque 2014

Ce rendez-vous annuel de la tradition et de la gastronomie est maintenant devenu un évènement incontournable : les confréries et le public répondent toujours présents !



## Accueil des nouveaux résidents

Les nouveaux résidents de Cambo sont régulièrement conviés à une réunion dont l'objectif principal est de leur souhaité (souhaiter) la bienvenue et (leur offrir) quelques informations générales.
Nous serons prochainement 7000 Camboars !



## Fleurissement à Cambo

En complément de l'action des jardiniers de la commune qui fleurissent les lieux publics, la commune honore tous les ans les initiatives privées : dans les catégories balcons, jardins, jardins potagers et autres, les lauréats sont récompensés de leurs efforts pour entretenir l'image de ville-jardin de Cambo.
Par ailleurs, le concours des mini-jardins a permis de constater que la relève est assurée grâce aux assistantes maternelles de Cambo.

## Lehen mundu gerlaren mendeburuaren oroitzarrea

Ekitaldi horren karietara, kanboar ordezkaritza bat Parisera hurbildu zen, Gerla Handiaren biktimei ohorea egiteko eta garra Kanboko oroitzarrerako ekartzeko.

## Gorazarrea Camille Muffat-i

2013ko egun hartan, eguzkipean eta soil-soilki, Camille-k ederki distiratu du Kanboko igerilari gazteen erdian.
Ez haiek eta ez guk, ez zaitugu ahantziko!

## Biztanle berriei abegi egitea:

Kanboko biztanle berriak bilkura batera gonbidatzen ditugu, noizetik noiz, ongi etorria egiteko eta zenbait informazio orokor eskaintzeko.
Laster 7000 kanboar izanen gara!

## Euskal oldarra, 2015

eguraldia segur ez izanik ere, hortxe genituen jendeak, nazioarteko txirrindulari gazteak txalotzeko.

## Musikaren besta:

Herritarren uda hastapeneko hitzordua dugu musikaren besta, Saint Joseph parke berrituaren alaitzaile; musika tresna tradizionalak eta talentu berriak egun oso batean elkarturik.

## Euskal bixkotxaren besta, 2014

Tradizio eta gastronomiaren urteroko hitzordu hau ez da huts egiterik : hala kofradiak nola publikoa beti hor ditugu!.

## Kanbo lorez apaintzea

Herriko baratzezainek leku publikoak loreztatzen dituzte; horiez gain, herriak jendeen ekintzak ohoratzen ditu ere, urtero: balkoi, lorategi, baratze eta bestelako kategoriatan saritzen ditugu Kanbo lore-herri bihurtzen ahalegintzen direnak.
Horrez gain, lorategi ttipien lehiaketak erakutsi digu geroa segurtatua dugula, Kanboko haurtzainen lanari esker.

# ASSANTZA, le projet culturel de centre ville à Cambo



**Acquise par la commune pendant l'opération immobilière qui a permis de créer des logements sociaux et des commerces sur la place Sorhainde, cette grande maison chargée d'histoire donne du souffle à la Culture en plein centre-ville.**

Après des travaux d'aménagement et de rénovation simples réalisés par les services techniques de la commune (sols, peintures et éclairage), le rez-de-chaussée est opérationnel dès la première année pour accueillir les visiteurs dans les salles d'exposition.
Inauguré en juin 2014 avec deux salles accessibles au public, le musée offre aujourd'hui cinq salles d'exposition conformes, dont deux seront consacrées à des expositions permanentes des deux artistes majeurs de Cambo, Jesus Echevarria et Pablo Tillac.

**Les trois autres salles permettent des expositions temporaires selon une programmation riche.**

- En 2015, le début de saison a proposé les expositions des **"peintres de Cambo" du 24 avril au 12 mai** ainsi que les œuvres très colorées de **Christine Etchevers du 15 mai au 8 juin.**
- **Dès le 9 juin et jusqu'au 22 juin, l'exposition "Cimes l'historique"**, associée aux parades et rassemblement de véhicules qui ont fait la gloire du rallye des cimes les 19 et 20 juin, a animé le centre ville de Cambo.

La situation d'Assantza, à proximité immédiate du "cœur de ville", incite les promeneurs à visiter le musée et assure le succès des expositions, comme ont pu en témoigner les premiers exposants. La centralité de l'édifice ainsi que la programmation dynamique et variée exerce un attrait culturel qui donne toute sa signification au projet, tant pour les visiteurs occasionnels et les curistes que tous les camboars, du printemps à l'automne.



*Bonnes visites !*

**ET POUR TERMINER LA SAISON 2015**

- Pablo Tillac, du 23 juin au 31 juillet
- Exposition sur la pelote du 1er août au 13 septembre
- Maïalen Echeverria, du 14 septembre au 31 octobre.

## ASSANTZA, Kanboko hiribarneko kultura proiektua.

Herriak erosi zuen historiaz bete etxe handi hau, Sorhainde plazan saltegiak eta bizitegi lagunduak sortzeko aukera eman zuen higiezinen operazioa bitartean, eta hiribarneko kulturari ufako eder bat ematen dio.

Berritze eta prestatze lan erraz batzuk egin zituzten udal zerbitzu teknikoek (zola, tindaketa eta argiteria), eta horrekin, etxe beherea lehen urtetik bertatik balia daiteke, bisitariei zabalik diren erakusketa geletan.

2014ko ekainean ireki genuen, publikoari zabalik ziren bi aretorekin; museoak, gaur egun, bost areto ditu; horietarik bi Kanboko bi artista handi ditugun Jesus Echevarria eta Pablo Tillac artisten gaineko erakusketa finkoak bilduko dituzte.

Gainerako hiru aretoak aldi baterako erakusketak eskainiko dituzte, programa aberats baten arabera.

2015ean, sasoinaren hastapenarekin, "Kanboko margolariak" erakusketa eskaini da, apirilaren 24tik maiatzaren 12ra, eta Christine Etchevers artistaren lan koloretsuak, maiatzaren 15etik ekainaren 8ra.

Ekainaren 9tik ekainaren 22ra, "Cimes l'historique (Kaskoak; historia)", erakusketak Kanboko hiribarnea alaitu du, ekainaren 19 eta 20an, gainera, kaskoen rally horren ospea egin duten autoen elkarretaratze eta erakustea ere egin zelarik.

Assantzaren kokaguneak, hiri erditik hurbil-hurbil denez, errazten die promenatzaileei museoaren eta erakusketen bisita; hala adierazi digute lehen erakusleek.

Eraikina erdi-erdian izateak eta duen programa dinamiko eta aberatsak kultura sustatzen dute azkarki eta proiektuari zentzua ematen, bai aldian aldiko bisitari eta kuristentzat, bai eta kanboar ororentzat ere, udaberritik udazkena bitartean.

Eta 2015eko sasoina bururatzeko:

- Pablo Tillac, ekainaren 23tik uztailaren 31ra
- Pilotari buruzko erakusketa, abuztuaren 1etik irailaren 13ra
- Maïalen Echeverria, irailaren 14tik urriaren 31ra.

**Bisita on!**







38 artistes peintres ont exposé à l'Espace Culturel ASSANTZA du 24 avril au 12 mai.

De styles très différents, les tableaux sont tous intéressants par leurs couleurs, leurs graphismes et ont ravi tous les visiteurs.















Apirilaren 24tik maiatzaren 12ra, 38 margolarik beren obrak erakustera eman dituzte Assantza kulturgunean. Estilo orotakoak, margo guziak ziren  interesgarriak, izan daitezen koloreak, grafismoak, bisitari guziak loriatu dituzte.



# Au sujet de la navette !

D'octobre à décembre 2014, soit pendant 3 mois entiers, un service de navette a été mis en place à titre expérimental sur la commune de Cambo.
3 lignes régulières desservaient les axes principaux de la ville. La ligne A desservait le quartier Iguzkian, la ligne B celui de Assantza Borda et la ligne C les quartiers de la route d'Hasparren et du Bas-Cambo.
La navette fonctionnait le matin les lundis, mercredis, vendredis et samedis et l'après midi le mercredi. Les habitants éloignés du centre pouvaient ainsi venir en ville pour faire leurs courses. L'intervalle entre le départ et l'arrivée leur laissant une durée minimale de 1 h 30.

Du point de la vue de l'information, des flyers ont été distribués dans de nombreux lieux publics et commerces, deux articles ont parus sur le Sud-Ouest, des affiches ont été posées, le site internet de la mairie en faisait mention. La navette elle-même bien identifiable portait à elle seule l'information.

**Résultats de cet essai**

- Octobre : 36 passagers pour 18 €
- Novembre : 20 passagers pour 10 €
- Décembre : 15 passagers pour 7,50 €
- Au total pour les 3 premiers mois : 71 passagers pour 35,50 €

On aurait pu penser qu'en novembre, après un mois de mise en place, et qu'en décembre, le mois où l'on effectue le plus d'achats les passagers auraient été plus nombreux.

**Statistiques par ligne**

- LIGNE A : 2 passagers
  Octobre : 2 - Novembre : 0 - Décembre : 0
- LIGNE B : 10 passagers
  Octobre : 8 - Novembre : 2 - Décembre : 0
- LIGNE C : 59 passagers
  Octobre : 26 - Novembre : 18 - Décembre : 15

Il est à noter que la ligne C, celle de la Route d'Hasparren et du Bas-Cambo a connu le plus grand nombre de passagers. Affluence très relative avec 70 passagers en 3 mois., ce qui, ramené à la semaine donne approximativement 7 passagers à la semaine….

En terme financier, le coût net (déficit) se monte à 4 527 € pour les 3 mois.

**A la lecture des statistiques et du résultat financier, la commune ne peut envisager de mettre en place ce service de façon définitive.**

## JOAN-JINKARIAZ!

2014ko urritik abendura bitartean, hau da, 3 hilabetez, joan-jinkari zerbitzu baten saioa egin dugu Kanbon. 3 linea erregular ari ziren herriko ardatz nagusietan joan-jinka. A lineak Iguzkian auzora zeraman, B lineak Azantza Borda auzora, eta C lineak Hazparneko errepideko eta Kanbo-Behereko auzoetara. Joan-Jinkaria astelehen, asteazken eta larunbat goizetan zebilen, bai eta asteazken arratsaldetan ere. Herri barnetik urrun bizi zirenak herrira etor zitezkeen, hala, erosketak egitera, joan-jinkaria abiatzen zenetik heltzen zen arte gutxienez oren eta erdi baitzuten.
Informazioa emateari dagokionean, eskuorriak banatu dira, hainbat leku publiko eta saltokitan; Sud-Ouest egunkarian bi artikulu argitaratu dira, afixak ere izan dira emanak, herriko etxearen webguneak aipatu du. Joan-jinkaria bera aski nabarmena zen eta informazioa zabaltzen zuen.
Saioak honako emaitza hauek eman ditu:
URRIA : 36 Bidaiari - 18 €
AZAROA : 20 Bidaiari - 10 €
ABENDUA : 15 Bidaiari - 7,5 €
OROTARA : 71 Bidaiari - 35.50 €
Pentsa zitekeen, azaroan, plantan eman zenetik hilabete ondoren, eta abenduan, erosketa gehien egiten den hilean, bidaiari gehiago izanen zirela.
Estatistikak lineaka eginez gero, hona emaitzak:

- LIGNE A : 2 Bidaiari
  Urria : 2 - Azaroa : 0 - Abendua : 0
- LIGNE B : 10 Bidaiari
  Urria : 8 - Azaroa : 2 - Abendua : 0
- LIGNE C : 59 Bidaiari
  Urria : 26 - Azaroa : 18 - Abendua : 15

Ikus daitekeenez, C lineak, hau da, Hazparneko errepideko eta Kanbo- Behereko lineak, ukan du bidaiari gehien. Erabilpena ez da handia izan, 70 bidaiari hiru hilabetetan izanik, astean 7 bidaiari egiten du…

Dirutan, gastu garbia (defizita) 4 527 €koa da, hiru hilabeteetarako
Estatistikak eta diruzko emaitza ikusirik, herriak ezin du zerbitzua behin betiko plantan eman.

# Les déchets verts

Nous sommes conscients que vous participez grandement à l'embellissement de la ville par l'entretien de vos jardins et balcons. Les services municipaux y sont aussi pour beaucoup.
L'effort de tous nous permet de vivre dans un environnement propre, fleuri et de de qualité.
Aussi, pour vous aider dans cette tâche, la ville de Cambo met à votre disposition un service de ramassage des déchets verts.
C'est ainsi que LE 1er JEUDI DE CHAQUE MOIS, vous pouvez déposer devant votre domicile le résultat du nettoyage de votre jardin.
Les agents de la ville vous en débarrasseront.
Cependant, quelques règles sont à respecter :
- Le ramassage ne concerne que la taille de l'année.

- Les branchages ne doivent pas excéder 1 mètre de long et doivent être fagotés avec de la ficelle.
- Les herbes et feuillages doivent être mis dans un sac poubelle non fermée ou dans une poubelle en dur non fermée. Ces contenants ne doivent pas dépassés 25 kg.
- Les déchets verts ne sont déposés sur le trottoir que la veille du ramassage.

Sont donc exclus de ce ramassage tout arrachage de haie, arrachage d'arbres, défrichage ou gravats divers.

Nous comptons sur vous pour respecter ces consignes qui permettent aux agents d'assurer un service efficace et de qualité.

Ajoutons que certains de ces déchets, tels les résidus de tonte et petites tailles d'arbustes peuvent être compostés pour la fabrication de votre terreau.

Enfin, la déchetterie est prête à recevoir tous les déchets qui ne peuvent pas être ramassés par le service de la ville de Cambo.

## HONDAKIN BERDEAK

Badakigu lan handia egiten duzuela herria edertzen, zuen baratze eta balkoiak zainduz. Herri zerbitzuek ere egiten dute beren ekarpena. Guztion ahaleginek ingurumen garbi, loratu eta kalitatezkoan bizitzeko aukera ematen digute.
Halatan, bada, egiteko horretan laguntzeko, Kanboko herriak hondakin berdeak biltzeko zerbitzua eskaintzen dizue.
Hartara, HIL BAKOITZEKO LEHEN OSTEGUNEAN, zuen etxe aitzinean eman diztzakezue zuen baratzea garbitzetik atera hondakin berdeak. Herriko langileek eramanen dituzte.
Halarik ere, zenbait arau bete behar dira:
- Urteko arradatzeak besterik ez dira bilduko.
- Adarrak ezin dira metro bat baino luzeagoak izan eta lokarriz loturiko zamatan behar dira eman.
- Belar eta hostoak, hondakin zaku ireki batean edo zikinontzi ireki batean eman behar dira. Edukiontzi horiek ez dute 25 kg baino gehiago pisatu behar.
- Hondakin berdeak ezin dira, espaloian, biltzeko egunaren bezpera arte utzi.

Ez dira errotik atera hesiak edo zuhaitzak edo labakitze hondarrak edo obra hondakinak bilduko.

# Déchets ménagers : poursuite et fin de la mise en place de la collecte "porte a porte" à Cambo

**AFIN D'AMÉLIORER LA QUANTITÉ ET LA QUALITÉ DU TRI ET DE RÉDUIRE LA QUANTITÉ DE DÉCHETS À ENFOUIR (ORDURES MÉNAGÈRES), LA COMMUNAUTÉ DE COMMUNES ERROBI MET EN PLACE UNE COLLECTE DES DÉCHETS EN PORTE À PORTE DAVANTAGE ADAPTÉE À VOS BESOINS.**

La majorité des foyers dispose de deux bacs : un bac pour les ordures ménagères collecté une fois par semaine, et un bac pour les emballages et papiers collecté tous les 15 jours. Une grande partie de Cambo a été réformée en 2013 et en 2015 : le dernier secteur de Cambo (Bas Cambo, route d'Hasparren, Donapetria…) le sera en fin d'année 2015.

